

ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO HAUTAGAIEN ZERRENDAK KUDEATZEKO PROPOSAMENA

1. Zerrendak oposiziotik bereiztea

Kontratazio-zerrenden kudeaketa eta EPE-prozesuak bereiztea proposatzen dugu, oposizioa gainditu eta plazarik gabe geratu izana merezimendu gisa hartuz. Horrek **egonkortasuna emanen lieke bitarteko irakasleei eta ikastetxeetako plantillei** eta EPEetako epaimahaikideen lana arintzen ere lagunduko luke.

2. Zerrenda integratua

Zerrenda bakarra izatea proposatzen dugu, kidego, espezialitate eta hizkuntza guztietako irakasleak batera biltzeko; merezimendu, gaitasun eta berdintasunaren printzipioa aintzat hartuz.

Zerrenda horretan hautagaiak hurrenkeran jarrita egonen dira, baremo baten arabera. **Baremo horren puntuaziorako kontuan hartuko da, batez ere, la esperientzia, hurrengo merezimenduekin osatua:**

- Espediente akademikoa.
- Bertze titulazio ofizial batzuk.
- Etengabeko prestakuntza (administrazioen prestakuntza-
eskaintzaren barneko ikastaro gaindituak edo emanak;
gainontzekoak baliogabeak izanik).
- Hizkuntzak jakitea (Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako
tituluez gain bertze batzuk ere bai).
- Arte-merezimenduak (musika eta arte eszenikoak, arte
plastikoak eta diseinua).
- Argitalpenak (kontzertuak eta konposizioak ere bai...).
- EPEra aurkeztu, gainditu eta plazarik gabe geratu diren
hautagaiak aztertzea.

Hautagai bakoitzaren izenaren alboan (lekualdatze-lehiaketan bezala) puntuazioa agertuko da, eta ondoren egiaztatu dituen eta lan egiteko nahi dituen kidego, espezialitate, hizkuntza eta profilak islatuko dira.

Hautagaiak zehaztuko dute aplikazio telematikoan lan-eskaintzei ematen dieten lehentasun-hurrenkera.

3. Zerrenda integraturako sarbidea

- Zerrenda beti irekita egotea eskatzen dugu. Eta agortzen denerako, mahai sektorialean banakako kontratazioak definitzeko eskatzen dugu.
- Mahai sektorialean definitu behar dira, halaber, zein espezialitatek behar duen sarbide-proba, proba-motak, probak ebaluatzeko irizpideak... Proba horiek urtero antolatzekeo eskatzen dugu, irakasle berriek zerrendan sartzea izan dezaten.
- Lehiaketa-oposizioa gainditzea eta plazarik ez lortzea.

4. Zerrenda integratua birbarematzea

Urtero-urtero birbarematzio-epea emanen da (ikasturtea bukatu baino lehen ebatziko da).

Profil bat kentzeko edozein unetan eskatu ahal izanen da, horretarako eskaria eginez.

5. Aldi baterako kontrataziorako plazak eskaintzea

Lanaldi partzialak onartzeko derrigortasuna kentzeko eskatzen dugu. Orobat, espezialitateari ez dagozkion arlo edo gaiez osatzen diren plazak ere onartzeko derrigortasuna kentzeko eskatzen dugu.

Lanaldi ez-osoko kontratuen kasuan zera eskatzen dugu: irakasleek lanaldia osatzeko aukera izatea, baldin eta ikastetxe berean edo bertze batean osatzea dagoenean, beti ere lanaldi osoa izateko asmoz.

6. Hautagaiei deitzea

EPE prozesu baten ondoren, ikaskurte-hasierarako plaza-esleipenak, zerrenda integral berria argitaratu bezain laster, emateko eskatzen dugu. Funtsezkoa da esleitu den plaza edo ordezipena gordetzea, baldin eta hautagaia laneratze-egunean aldi baterako ezintasunaren egoeran badago edo ama biologikoa ez den gurasoaren baimena badu (seme-alaben jaiotza, zaintza, harrera edo adopzioa dela-eta).

Eta ikasturtean zehar bete behar diren esleipenei dagokienez, ATP egunerokoa izatea eskatzen dugu, ikastetxeetako ordezipenak lehenbailehen egitearren.

7. Kanporatzeak

Probaldiaren barnean kontratua azkentzeko, espezialitate batean gaitasun falta, lanposturako egokitzapen falta eta irakasteko gaitasun falta erabakitzekeo irizpideak sektore-mahaian negoziatzeko eskatzen dugu, irizpide horiek objektiboak eta gardenak izan daitezen.